# ENERGIAREN SUPERHEROIA IZATEKO GIDA

IZENA:

ABIZENA:

ZURE SUPERHEROI IZENA:

ADINA:

HELBIDEA:

HERRIA:




piztu tolosaldea

TOLOSALDEA GARATZEN



Kaixo! Izpi naiz, energiaren superheroia. Mundu garbiago bat nahi dut, eta zure laguntza behar dut. Erraza da, proba batzuk baino ez dituzu bete behar. Batuko zara nire superheroien taldera?

**ZUK ERE SUPERHEROI IZAN NAHI BADUZU, BETE LIBURUKO PROBA GUZTIAK EGUNERO. PROBA BAT BETETZEAN, LAUKIAN SINATZEKO ESKATU ZURE GURASO EDO TUTOREEI.**

**DENAK EGINDAKOAN, IZPIREN KAPA ETA ANTIFAZA JASOKO DITUZU. ZEREN ZAIN ZAUDE?**

# 1

# PIZTU, BAINA ITZALTZEAZ EZ AHAZTU

"Kili-tali-zali, erabili ta itzali!". Esaldi hori buruz ikasi nuenetik, errazagoa zait argiak, ordenagailua, telebista edo irratia itzaltzea. Zeren zai zaude?

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| DATA | DATA | DATA | DATA | DATA | DATA | DATA |



Astebetez egunero-egunero bete nuen proba hori nire lehen superboterea ikasteko. Proba betetzen duzun bakoitzean, eskatu guraso edo tutoreei laukietan sinatzeko.

# 2

# SAIATU, HANKEKIN BIDAIATU

Oinez, bizikletaz edo patinetez joaten naiz ahal dudan guztietan. Gainera, osasuntsu eta indartsu mantentzen naiz horrela. Eta ezin dudanetan, autobusez edo trenez mugitzen naiz.

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| DATA | DATA | DATA | DATA | DATA | DATA | DATA |



# 3

# KANPOA HOTZ, BARRUA BERO

...eta goxo-goxo gero. Etxeko berogailua martxan dagoenean, leihoak itxi egiten ditut.

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| DATA | DATA | DATA | DATA | DATA | DATA | DATA |



# 4

# DUTXAKO ARDURA, AURREZTEA URA

Dutxan xaboia ematerakoan, ur beroa itzaltzen dut. Eta hori bai, ur azpian ez dut denbora gehiegi pasatzen. Di-dau batean dutxatzen naiz, lehenbailehen jolastera joateko.

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| DATA | DATA | DATA | DATA | DATA | DATA | DATA |



# 5

# TANTAZ TANTA, ALDEA GALANTA

Hortzak garbitzerakoan, txorrota itzaltzea ahazten zitzaidan batzuetan. Orain, ispilura begiratu eta kontxo...! Ura behar dudanean bakarrik erabiltzen ikasi dut horrela.

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| DATA | DATA | DATA | DATA | DATA | DATA | DATA |




Gero eta gehiago gara superheroi kuadrillan. Orain zure zain gaude. Proba guztiak bete eta izan gutariko bat!
Non jaso ditzaket Izpi superheroiaren kapa eta antifaza?

## JASO ZURE KAPA ETA ANTIFAZA ZURE HERRIAN BERTAN!



| | |
|---|---|
| **ADUNA** | Liburutegia: Herriko plaza, z/g |
| **ABALTZISKETA** | Udala: San Joan plaza, z/g |
| **AMEZKETA** | Liburutegia: Bartolome Deunaren kalea, 37 |
| **ALEGIA** | Kultur Etxea: San Joan kalea, 63 |
| **ALBIZTUR** | Udala: Erdigunea, 22 |
| **ALKIZA** | Liburutegia: San Martin plaza z/g |
| **ALTZO** | Liburutegia: Altzo-Muino auzoa, 73 |
| **ANOETA** | Liburutegia: Lasarbe, 1 |
| **ASTEASU** | Liburutegia: Kale Nagusia, 8 |
| **BERASTEGI** | Liburutegia: Herriko enparantza, 1 |
| **BERROBI** | Liburutegia: Jose M. Goikoetxea kalea, 28-2 |
| **IKAZTEGIETA** | Ostatua: San Lorentzo Auzunea, 1-A |
| **IBARRA** | Kultur Etxea: Euskal Herria kalea, 44 |
| **IRURA** | Liburutegia: Peio Arrese kalea, 1 |
| **LIZARTZA** | Liburutegia: Askatasunaren Plaza, 1 |
| **TOLOSA** | Haur liburutegia: Andre Maria plaza, 5 |
| **VILLABONA** | Gaztelekua: Kale Nagusia, 79 |
| **ZIZURKIL** | Liburutegia: Ernio Bidea, 9-A behea |



## ENTREGA AGIRIA

Superheroi kuadrilla handia nahi dugu, baina lehen misiorako ezin gara 300 baino gehiago izan. Hortaz, superheroi izan nahi baduzu, bete proba guztiak ahal bezain pronto eta batu zaitez lehenbailehen.

Ez ahaztu energia aurreztea
denon ardura dela!



piztu tolosaldea

TOLOSALDEA GARATZEN

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA